

LANKIDETZA HITZARMENA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN, BEASAINGO UDALAREN ETA CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. REN ARTEKOA, UHOLDEAK PREBENITZEKO ORIA IBAIAREN ARROAN, BEASAINGO UDALERRIAN (UAHE) - ES017-GIP-14-1 KODEKO EREMUAN.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. PARA LA PREVENCIÓN DE INUNDACIONES EN LA CUENCA DEL RÍO ORIA, EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE BEASAIN EN EL (ARPSI) - ES017-GIP-14-1

Beasainen, 2020ko urtarrilaren 22an

En Beasain, a 22 de enero de 2020,

ELKARTU DIRA

Uraren Euskal Agentziako Zuzendari Nagusia den ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO ARRIETA jauna eta agentzia horren estatutuetako 7.2.g) artikulua ematen dion eskumenaren arabera.

Beasaingo Udalaren alkate-udalburua den AITOR ALDASORO ITURBE jauna, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 21. artikulua bidez udala ordezteko eman dion eskumen legalaz baliatuta.



Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. (aurrerantzean, CAF) Merkataritza Sozietatearen ordezkari GORKA ZABALEGI AGINAGA jauna, hitzarmen honen eranskineko eskrituraren bidez esleitzen zaion ahalmena betez.



SE REUNEN

D. ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO ARRIETA, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos de la misma.

D. AITOR ALDASORO ITURBE, como Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Beasain en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

D. GORKA ZABALEGI AGINAGA, en representación de la Sociedad Mercantil Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A (en adelante C.A.F.), en virtud de poder atribuido mediante escritura que se adjunta como anexo a este convenio.

Parte hartzaileek elkarri aitortzen diote LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko behar den lege gaitasuna eta horretarako

Las personas intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. paragrafoen arabera, autonomia erkidegoari dagokio, bere lurraldearen barnean, aprobetxamendu hidraulikoen eskumen eskusiboa, urak bere osotasunean EAEn barnean pasatzen badira, baita Estatuaren interes orokorrekoak ez diren obra publikoena edo beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dien obra publikoena ere.

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

BIGARRENA.- 1/2006 Legeak, ekainaren 23koak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumenaren arloko eskumena duen Sailari atxikitako Zuzenbide Pribatuko erakunde publiko gisa. Agentzia honen helburua da EAEn uraren politika gauzatzea eta, besteak beste, berari dagokio estatuko Administrazioak transferitu, delegatu edo esleitutako eskumenak baliatzea.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 23 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

HIRUGARRENA.- Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Tokiko Erakundeei buruzkoak 17.8) artikuluan udalei esleitzen dizkien eskumenen arabera: *"Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea,*

TERCERO.- Que, de conformidad con las competencias que el art. 17,8) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales otorga a los Ayuntamientos: *"ordenación complementaria, promoción, gestión, defensa*

sustatzea, kudeatzea eta defendatzea....”, Beasaingo Udalak interes publikotzat jotzen du hitzarmen hau sinatzea uholde arriskua murrizteko, eta, horrela, beasaindarren bizitza kalitatea hobetzen ere lagunduko da.

LAUGARRENA.- Beasaingo udalerrian Oria ibaiaren ertzetan dauden lurrak, zehazki CAFen instalazio industrialen parean daudenak, zati handi batean urpean gera daitezkeen lurrak dira.

Hori dela eta, lur horiek ES017-GIP-14-1 - Uholde Arrisku Handiko Eremuan (UAHE) daude.

Testuinguru horretan, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako aldearen Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (UAKP), 20/2016 Errege Dekretuaren, urtarilaren 15ekoaren bidez onartuak, besteak beste, eremu horretan egiturazko jarduketa hauek planteatzen ditu:

Ibaiaren ezker aldeko eraikuntzak eraistea, oztopo handia baitira; dauden zubiak ordeztzea; ibaiaren arroa zabaltzea; luzetarako defentsak eraikitzea.

Jarduketa horiek UAKPh 2021-2027 horizonterako aurreikusten badira ere, Planak berak aurreikusten du jarduketa zehatzak aurrera daitezkeela lehen horizontera, beren

y protección del medio ambiente....”, el Ayuntamiento de Beasain considera de interés público suscribir el presente convenio en aras a reducir el riesgo de inundabilidad, contribuyendo con ello a una mejora de la calidad de vida de los beasaindarras.

CUARTO.- Los terrenos sitos en el municipio de Beasain, en las márgenes del río Oria, concretamente a la altura de las instalaciones industriales de C.A.F., son, en buena parte, inundables.

Debido a ello, esos terrenos están situados dentro del Área de Riesgo Potencial Significativo de Inundación (ARPSI) - ES017-GIP-14-1.

En ese contexto, el Plan de gestión del riesgo de inundación (PGRI) de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, aprobado por Real Decreto 20/2016, de 15 de enero, plantea, entre otras, las siguientes actuaciones estructurales en ese ámbito:

Demolición de edificaciones situadas en la margen izquierda del río, que suponen una importante obstrucción; sustitución de puentes existentes; ampliación del cauce; construcción de defensas longitudinales.

Si bien estas actuaciones se prevén en el PGRI para el horizonte 2021-2027, el propio Plan prevé la posibilidad de la anticipación de la ejecución de actuaciones puntuales al

efikazia indibidualarengatik eta egokitasun arrazoiengatik aurrera daitezke, nahiz eta UAHEn (Uholde Arrisku Handiko Eremuan) saihestu beharreko kalte guztiak plangintzaren hurrengo zikloetan deuseztatuko diren.

Aipatutako uholde arriskuak kentzeko behar diren obrak gauzatzea interes publikokoa da, eta Beasaingo udalerriko ingurune horretako kalitatearen eta segurtasunaren baldintza orokorrak hobetuko ditu.

BOSGARRENA.- CAFek bere jarduera aipatutako eremu horretan bere jabetzan dituen lurretan eta instalazioetan garatzen du. Hori dela eta, jakitun da aipatutako obra hidraulikoak egiteak eta uholde arriskuak kentzeak berak egiten duen jarduera industrialari onura ekarriko diola, baita segurtasunari eta etorkizuneko egonkortasunari ere.

Nolanahi ere, obra hidrauliko horiek osatu egin beharko dira gaur egun eta etorkizunean enpresak bere jarduera industrial garatzeko dituen eta izango dituen premiei erantzuteko. Hori dela eta, hainbat jarduketa egin beharko dira, baita jarraian adierazten direnak ere.

Era berean, eraitsi beharreko bi zubiak dira, batetik, Beasaindik CAFera joateko sarbide

primer horizonte que, por su efectividad individual y por razones de oportunidad pueden adelantarse aunque la eliminación total de los daños a evitar en el ARPSI (Área con Riesgo Potencial Significativo de Inundación) se acometan en ciclos posteriores de planificación.

La ejecución de las obras necesarias para eliminar los citados riesgos de inundabilidad es de interés público y conllevará la mejora de las condiciones generales de calidad y seguridad de ese entorno del municipio de Beasain.

QUINTO.- C.A.F. desarrolla su actividad en terrenos e instalaciones de su propiedad situadas en el ámbito mencionado. Debido a ello, es consciente de que la ejecución de las mencionadas obras hidráulicas y la eliminación de los riesgos de inundabilidad que eso conllevará, revertirá en beneficio de la actividad industrial desarrollada por ella, y de su seguridad y estabilidad a futuro.

En todo caso, la ejecución de esas obras hidráulicas se ha de complementar con la respuesta a las necesidades presentes y futuras asociadas al desarrollo de la actividad industrial de la empresa, que requiere la ejecución de distintas actuaciones, incluidas las que se exponen a continuación.

A su vez, los dos puentes a derribar son, por un lado el acceso principal a C.A.F desde

nagusia, ordeztu egin beharko dena, eta, bestetik, eraitsi beharreko bulegoak A bulegoen eraikinarekin (bulego orokorrak) lotzeko pasarela, ibaiaren eskuinaldean.

Obra hidrauliko horiek osatu egin beharko dira, batetik, eraitsi beharreko eraikinetik desagertuko diren erabilerak eta zerbitzuak izango dituen eraikina edo eraikinak ezarrita eta, bestetik, CAFera sartzeko gaur egungo zubia berri batekin ordeztuta.

Eraikin horiek Oria ibaiaren eskuinaldean egongo dira, gaur egungo eraikinen inguruan, hau da, eraikin berriek indartuko dituzten jarduerak gauzatzen dituzten gaur egungo eraikinen inguruan.

Dena den, CAFek badaki ingurune honi aipatutako uholde arriskuek eragiten diotela eta, hori dela eta, eraikin hori edo horiek egokitu egingo dira arlo honetan indarrean dauden lege xedapenetan ezarritako irizpideetara.

SEIGARRENA.- Uholde arriskuak kudeatzeko Planak ingurune horretako jarduketak 2021-2027 horizonterako jasotzen baditu ere, horiek gauzatzeko behar diren lurrak edukitzea eta jarduketak gauzatzeko Udalaren eta CAFen ekarpena eta lankidetzaz izatea behar besteko egokitasun arrazoiak dira (jarduketen efikazia dela eta) Agentziak erabakitzeko egokia dela jarduketak une honetan gauzatzea; horrela,

Beasain, que debe ser sustituido; y la pasarela de conexión de las oficinas a derribar con el edificio de oficinas A (Oficinas Generales) en la margen derecha del río.

La ejecución de esas obras hidráulicas se ha de complementar, por un lado, con la habilitación del edificio o edificios que acojan los usos y servicios desaparecidos en el edificio a derribar y, por otro, con la sustitución del puente actual de acceso a C.A.F. por uno nuevo.

Esas edificaciones se han de situar en la margen derecha del río Oria, en las inmediaciones de las edificaciones actuales en las que se desarrollan las actividades que aquellas vienen a reforzar.

En todo caso, C.A.F. conoce que ese entorno está afectado por los referidos riesgos de inundabilidad y que, debido a ello, la habilitación de ese o esos edificios se ha de adecuar a los criterios establecidos en las disposiciones legales vigentes en la materia.

SEXTO.- Si bien el Plan de gestión del riesgo de inundación contempla las actuaciones de ese entorno para el horizonte 2021-2027, el hecho de poder contar con los terrenos necesarios para su ejecución y con la aportación y colaboración del Ayuntamiento y de CAF para llevarlo a cabo, son razones de oportunidad suficientes para que, dada la efectividad de las actuaciones, la Agencia

horrek guztiak udalerriari ekarriko dion onura ere aurreratuko da.

ZAZPIGARRENA.- Horregatik guztiagatik, Uraren Euskal Agentziak, Beasaingo Udalak eta CAFek lankidetzan hitzarmen hau formalizatzen dute jarduketa horiek gauzatzeko, eta klausulak hauek izango dira

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da arautzea Uraren Euskal Agentziak, Beasaingo Udalak eta CAFek bigarren klausulan jasotako jarduketak finantzatzeko eta gauzatzeko lankidetzarako hartutako konpromisoen baldintzak onartzea.

BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.

1.- Hurrengo klausuletan ezarritako baldintzetan gauzatu beharreko jarduketak hauek dira:

a) Batetik, jarraian aipatzen diren obra hidraulikoak, gune honetan uholde arriskua kudeatzeko Planean jasota daudenak:

- Oria ibaiaren ezker aldean, J.M. Iturriotz kalean, dauden eraikinak eraistea.

haya decidido la conveniencia de acometerlas en este momento, adelantando también así el beneficio que ello va a suponer para el municipio.

SÉPTIMO.- Por todo ello, la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Beasain y CAF proceden a la formalización del presente convenio de colaboración para llevar a cabo estas actuaciones, con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

Es objeto del presente convenio regular las condiciones en las que, la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Beasain y CAF, se comprometen a colaborar en la financiación y ejecución de las actuaciones recogidas en la cláusula segunda.

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

1.- Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son:

a) Por un lado, las obras hidráulicas que, estando recogidas en el Plan de gestión del riesgo de inundación para esta zona, se mencionan a continuación:

- El derribo de las edificaciones situadas en la margen izquierda del río Oria en la calle

- Pasarela eta CAFen instalazioetara sartzeko zubia eraistea.
- Ingurune horretan ibaia zabaltzea eta bideratzea.
- Ibaiaren ezker aldean lortuko den espazio publikoa urbanizatzea.

Aurreko obrak osatu egingo dira ibilgailu arinak (turismoak eta furgonetak) eta oinezkoak CAFera joateko zubi berri bat eraikita, eraitsiko den zubitik gertu dagoen ingurunean.

Teknikoki bideragarria bada, egungo zubia eraitsi aurretik, aurreikusten den zubi berria eraiki eta gaitu beharko da. CAFeko oinezkoen sarbidea bermatuko da Beasaindik, egungo sarbidearen inguruan.

b) Bestalde, CAFen gaur egungo eta etorkizuneko premiei erantzuten dietenak, zehazki une honetan, gaur egun atezaindegiaren ondoan kokatuta dauden bulegoak (eraitsi egingo dira adierazitakoaren arabera) ordeztuko dituzten bulegoa edo bulegoak egin eta egokitzeko eta horietan gaur egun eskaintzen diren zerbitzuak ezartzeko.

2.- Kontuan izanda jarduketa hauekin bete beharreko premiak eta hainbat jardueri eragingo dietela, jarduketak hitzarmenaren Eranskinean zehazten den programaziora egokituko dira.

J.M. Iturriotz.

- El derribo de la pasarela y puente de acceso a las instalaciones de CAF.
- El ensanchamiento y encauzamiento del río en ese entorno.
- La urbanización del espacio público resultante en la citada margen izquierda.

Las obras anteriores se complementarán con la construcción de un nuevo puente para acceso de vehículos ligeros (turismos y furgonetas) y peatones a CAF, en el entorno cercano al puente a derribar.

Si resulta técnicamente posible, el derribo del puente actual debe ir precedido de la construcción y habilitación del nuevo previsto. Se garantizará el acceso peatonal a CAF desde Beasain en el entorno del acceso actual.

b) Por otro, aquéllas que dan respuesta a las necesidades presentes y futuras de C.A.F., concretamente en este momento, la ejecución y habilitación del edificio o edificios de oficinas con el objetivo de sustituir a las oficinas actualmente existentes en la zona de la portería (a derribar conforme a lo indicado) y acoger los servicios que se ofrecen actualmente en los mismos.

2.- Atendiendo a las necesidades a satisfacer con estas actuaciones y las afecciones que provocarán a diferentes actividades, su ejecución se adecuará a la programación que se detalla en el Anexo del convenio.

HIRUGARRENA. URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Eraikinen eraispena eta obra hidraulikoak jasotzen dituen proiektua egitea, bigarren klausularen 1a) apartatuan aipatutako edukia eta irismena izango dituen. Proiektuaren edukia helburu hidraulikoetara egokituko da. Ahal den heinean, kontuan izango dira udalerriak eta CAFek ingurune horretan dituzten hirigintza premiak.

b) Proiektu horretako obrak kontratatzea.

c) Aipatutako obrak teknikoki zuzentzea eta ikuskatzea.

d) Klausula honetako obren kontratazioaren kostu efektiboaren % 50 finantzatzea eta ordaintzea, hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan.

Uraren Euskal Agentziak gehienez zenbateko hauek ordaintzeko konpromisoa hartzen du, horrek ez du eragozten zazpigarren klausulan ezarritakoaren arabera kopurua hazi ezin litekeenik: MILIOI BAT (1.000.000) EURO, MILA (1.000) EUROKO 2019rako ordainketa kreditu bati dagokiona, EHUN MILA (100.000) EUROKO konpromiso kreditu bat 2020rako eta

TERCERA. COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Aportar el proyecto que incluya tanto al derribo de los edificios como las obras hidráulicas, con el contenido y el alcance mencionados en el apartado 1a) de la anterior cláusula segunda. El contenido del proyecto se adecuará a los objetivos hidráulicos. Se atenderá en la medida de lo posible a las necesidades urbanísticas del municipio y CAF en ese entorno.

b) Contratar las obras incluidas en dicho proyecto.

c) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

d) Financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en esta cláusula, en los términos previstos en el convenio.

El importe máximo, que compromete la Agencia Vasca del Agua, sin perjuicio de que pueda incrementarse de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula séptima, es de UN MILLÓN (1.000.000) DE EUROS, correspondientes a un crédito de pago para 2019 de MIL (1.000) EUROS, un crédito de compromiso para 2020 de CIENTO MIL

ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA
HEMERETZI (899.000) MILA EUROKO
konpromiso kreditu bat 2021erako, Uraren
Euskal Agentziaren aurrekontuaren kontura
finantzatzeko direnak.

(100.000) EUROS y un crédito de
compromiso para 2021 de OCHOCIENTOS
NOVENTA Y NUEVE MIL (899.000) EUROS,
que se financiarán con cargo al presupuesto
de la Agencia Vasca del Agua.

LAUGARRENA.- BEASAINGO UDALAREN KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalak konpromiso hauek hartzen
ditu:

a) Proiektatutako obra hidraulikoak gauzatzeko
behar diren jarduketak sustatzea eta
baimentzea, baita hauekin guztiekin
erlazionatutakoak ere: udalaren titulartasuneko
lurak okupatzea, baldin eta obra horiek
gauzatzeko behar badira; eragindako lurak
urbanizatzea, etab.

b) CAFen bulego berriak eraikitze eta/edo
egokitzeko obrak baimentzea.

c) Hirigintzako (antolamenduko eta
kudeaketako) dokumentuak tramitatzea eta
onestea, baldin eta dokumentu horiek egokiak
badira CAFen lurretan eta jabetzatan
aurreikusitako obra hidraulikoen eraginak
erregularitzatzeko, baita honetarako
beharrezkoak direnak ere:

- Eraitsi beharreko eraikinen gaur egungo
eraikigarritasuna finkatzea, horrek ez du

CUARTA.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN.

El Ayuntamiento de Beasain se compromete
a:

a) Promoción y autorización de las
actuaciones necesarias para la ejecución de
las obras hidráulicas proyectadas, incluidas
las relacionadas con las siguientes:
ocupación de terrenos de titularidad municipal
que, en su caso, requiera la ejecución de
dichas obras; urbanización de los terrenos
afectados; etc.

b) Autorización de las obras de construcción
y/o habilitación de las nuevas oficinas de
CAF.

c) Tramitación y aprobación de los
documentos urbanísticos (de ordenación y
gestión), que se estimen adecuados para
regularizar las afecciones derivadas de las
obras hidráulicas previstas en los terrenos y
propiedades de C.A.F., incluidos los
necesarios para:

- Consolidar la edificabilidad actual de las
edificaciones a derribar, sin perjuicio de su

eragozten eraikin horiek beste kokaleku batzuetara eramatea.

- Eraikigarritasun hori handitzea eraitsi beharreko eraikinen galera konpentsatzeko, baita enpresak gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen premiei erantzuteko ere; etab. Handitze hori HAPOn gauzatuko da, gaur egun idazten ari direna edo arau subsidiarioak zehazki aldatuta.

Helburu horretarako egin beharreko dokumentuak Udalak eta CAFek akordioz zehaztuko dituzte. Bi alderdiek zehazten dutenean egin eta tramitatuko dira eta, kasu guztietan, CAFen premiei erantzuteko behar besteko aurrerapenarekin.

d) Lizentziak, baimenak ematea—baita beharrezkoak badira hidraulikoak ere— eta hitzarmenaren xede diren jarduketak kontratatze eta gauzatzeko aurretiazkoak eta beharrezkoak diren ez kontratzeko gainerako tramite administratiboak.

e) 3 a) klausulan jasotako obren kontratazioaren kostu efektiboaren % 50 finantzatzea eta ordaintzea, hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan.

Beasaingo Udalak gehienez zenbateko hauek ordaintzeko konpromisoa hartzen du, horrek ez du eragozten zazpigarren klausulan ezarritakoaren arabera kopurua hazi ahal

traslado a otros emplazamientos.

- Incrementar esa edificabilidad en los términos necesarios para compensar la pérdida de las edificaciones a derribar, así como para dar respuesta a las necesidades presentes y futuras de la empresa; etc. Dicho incremento se materializará en el PGOU, actualmente en redacción o mediante una modificación puntual de NN SS.

Los documentos a elaborar con ese fin serán determinados de común acuerdo por el Ayuntamiento y C.A.F. Serán elaborados y tramitados en el momento en el que ambas partes lo determinen y, en todo caso, con la suficiente antelación para dar respuesta a las necesidades de C.A.F.

d) Otorgar las licencias, autorizaciones incluidas de ser necesario las hidráulicas y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio.

e) Financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en la cláusula 3 a), en los términos previstos en el convenio.

El importe máximo que compromete el Ayuntamiento de Beasain, sin perjuicio de que pueda incrementarse de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula séptima, es de UN

izatea: MILIOI BAT (1.000.000) EURO, MILA (1.000) EUROKO 2019rako ordainketa kreditu bati dagokiona, EHUN MILA (100.000) EUROKO konpromiso kreditu bat 2020rako eta ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA (899.000) EUROKO konpromiso kreditu bat 2021erako, Udalaren aurrekontuaren kontura finantzatzeko direnak.

f) Ziurtatzea obren % 50 finantzatzeko behar den kreditua dagoela eta erabilgarri dagoela.

g) Uraren Euskal Agentzietatik hartzea horrek gauzatutako obrak, amaitutakoan eta Agentzietatik hartutakoan Beasaingo Udalak era egokian kudeatu eta mantendu beharko ditu, eta konpromisoa hartzen du aurrekontu aurreikuspenak egiteko eta helburu horretarako behar diren gainerako neurriak hartzeko.

Testuinguru horretan, gaur egungo zubia ordeztuko duen zubi berriaren titulartasuna Beasaingo Udalarena izango da, eta zubiaren mantentzea erakunde horrek eta CAFek gai horri buruz adosten dituzten irizpideetara egokituko da.

h) Mantentze eta garbiketa lanak egitea aldi berean, betiere egokiak izango direnak entregatuko diren azpiegitura hidraulikoen urak husteko gaitasuna kontserbatzeko.

MILLÓN (1.000.000) DE EUROS, correspondientes a un crédito de pago para 2019 de MIL (1.000) EUROS, un crédito de compromiso para 2020 de CIEN MIL (100.000) EUROS y un crédito de compromiso para 2021 de OCHOCIENTOS NOVENTA Y NUEVE MIL (899.000) EUROS, que se financiarán con cargo al presupuesto del Ayuntamiento de Beasain.

f) Certificar la existencia y la disposición del crédito preciso para financiar el 50% de las obras.

g) Recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras ejecutadas por ésta, una vez terminadas y recibidas por ella, obligándose el Ayuntamiento de Beasain, a su gestión y mantenimiento adecuado, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

En ese contexto, la titularidad del nuevo puente previsto en sustitución del actual corresponderá al Ayuntamiento de Beasain, y su mantenimiento se adecuará a los criterios que a ese respecto acuerden dicha entidad y C.A.F.

h) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las infraestructuras hidráulicas que se entregan.

BOSGARRENA.- CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SA-REN KONPROMISOAK

CAFeK konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Bulego berriak egokitzeko obrak egitea eta ordaintzea.

b) Ura Euskal Agentziaren eskura jartzea Oria ibaiaren ezker aldean bere jabetzan dituen lurak eta eraikinak, proiektatutako obra hidraulikoek eragingo dietenak, hitzarmen honetan ezarritako programazio baldintzen arabera (programazioaren 3. fasea).

c) Hirigintzako (antolamenduko eta kudeaketako) dokumentuak sustatzea, idaztea eta ordaintzea, baldin eta dokumentu horiek egokiak badira CAFen lurretan eta jabetzatan aurreikusitako obra hidraulikoen eraginak erregularizatzeko, baita honetarako beharrezkoak direnak ere:

- Eraitsi beharreko eraikinen gaur egungo eraikigarritasuna finkatzea, horrek ez du eragozten eraikin horiek beste kokaleku batzuetara eramatea.

- Eraikigarritasun hori handitzea eraitsi beharreko eraikinen galera konpentsatzeko, baita enpresak gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen premiei erantzuteko ere; etab. Handitze hori HAPOn gauzatuko da, gaur egun idazten ari direna edo arau

QUINTA.- COMPROMISOS DE CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.

C.A.F. se compromete a:

a) Ejecutar y abonar las obras de habilitación de sus nuevas oficinas.

b) Poner a disposición de la Agencia Vasca del Agua los terrenos y edificaciones de su propiedad, en la orilla izquierda del Oria, afectados por las obras hidráulicas proyectadas, de conformidad con las condiciones de programación establecidas en este convenio (fase 3 de la programación).

c) Promoción, redacción y abono de los documentos urbanísticos (de ordenación y gestión), que se estimen adecuados para regularizar las afecciones derivadas de las obras hidráulicas previstas en los terrenos y propiedades de C.A.F., incluidos los necesarios para:

- Consolidar la edificabilidad actual de las edificaciones a derribar, sin perjuicio de su traslado a otros emplazamientos.

- Incrementar esa edificabilidad en los términos necesarios para compensar la pérdida de las edificaciones a derribar, así como para dar respuesta a las necesidades presentes y futuras de la empresa; etc. Dicho incremento se materializará en el PGOU

subsidiarioak zehazki aldatuta.

Helburu horretarako egin beharreko dokumentuak Udalak eta CAFek akordioz zehaztuko dituzte. Bi alderdiek zehazten duten unean egin eta tramitatuko dira eta, kasu guztietan, CAFen premiei erantzuteko behar besteko aurrerapenarekin.

Hirigintzako dokumentuak idatzi eta ordaintzeko aipatutako konpromisoek ez dituzte beren barnean hartzen gaur egun idazten ari den HAPO lantzekoak direnak, ezta planteatutako hirigintzako proposamen guztiak edo baten bat bertan zehazten bada ere.

SEIGARRENA.- OBRAK KONTRATATZEA, ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA.

1- Uraren Euskal Agentzia, hitzarmen honetako 3 b) klausularen arabera, hitzarmenaren xede diren obrak kontratatzeaz arduratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplikatu beharreko kontratazio araubidearen arabera.

2.- Uraren Euskal Agentziak gauzatu beharreko obrak zuzenduko ditu eta horien ikuskapen teknikoa egingo du. Gainera, aipatutako Agentziak onetsiko ditu ziurtagiriak.

actualmente en redacción o mediante una modificación puntual de NN SS.

Los documentos a elaborar con ese fin serán determinados de común acuerdo por el Ayuntamiento y C.A.F. Serán elaborados y tramitados en el momento en el que ambas partes lo determinen y, en todo caso, con la suficiente antelación para dar respuesta a las necesidades de C.A.F.

Los citados compromisos de redacción y abono de documentos urbanísticos no incluyen en ningún caso los de elaboración del PGOU actualmente en redacción, ni siquiera en el de que todas o algunas de las propuestas urbanísticas planteadas se determinen en él.

SEXTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN E INSPECCIÓN DE LAS OBRAS.

1- La Agencia Vasca del Agua, conforme a la cláusula 3 b) del presente convenio, se hace cargo de la contratación de las obras objeto del mismo, según el régimen de contratación aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Corresponderá a la Agencia Vasca del Agua la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar. Además corresponderá a la citada Agencia la aprobación de las certificaciones.

3.- Agentziak obrak hartuta, horiek Beasaingo Udalaren eskura jarriko ditu, laugarren klausulan adierazitakoaren arabera kontserba ditzan. Udalari obren jabetza eskualdatuko zaiola eta horiek era egokian kontserbatzeko eta ustiatzeko hartuko duen konpromisoa akta baten bidez antolatuko dira.

4.- Hitzarmena gauzatzean, Uraren Euskal Agentziak ez du konpromisorik ezta ardurarik izango hondakin uren saneamendu eta arazketa betebeharrari dagokionez, Beasaingo Udalaren eskumena baita.

ZAZPIGARRENA.- OBRAK FINANTZATZEA ETA ORDAINTZEA.

1.- Uraren Euskal Agentziak kontratazioaren gastua baimendu baino lehen, Beasaingo Udalak aipatutako Agentziari igorriko dio lizitazioaren aurrekontuari dagokion zenbatekoaren % 50 estaltzeko aurrekontu egokia eta zehatza duela ziurtatzen duen agiria.

2.- Adjudikazio proposamena formulatu ondoren eta kontratua esleitu aurretik, Beasaingo Udalak Uraren Euskal Agentziari bidaliko dio adjudikazioaren zenbatekoaren % 50 estaltzeko kreditu egokia eta behar bestekoa erabilgarri duela ziurtatzen duen agiria.

3.- Recibidas las obras por la Agencia, ésta las pondrá a disposición del Ayuntamiento de Beasain, para su posterior conservación conforme a lo indicado en la cláusula cuarta. La transmisión de la posesión de las obras al Ayuntamiento y su compromiso de adecuada conservación y explotación se articularán mediante un acta.


4.- Durante la ejecución del convenio, la Agencia Vasca del Agua no asume compromiso ni responsabilidad alguna en cuanto a la obligación de saneamiento y depuración de aguas residuales que compete al Ayuntamiento de Beasain.

SÉPTIMA.- FINANCIACIÓN Y PAGO DE LAS OBRAS.

1.- Antes de la autorización del gasto de la contratación por parte de la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Beasain remitirá a la citada Agencia el certificado de la existencia del crédito presupuestario adecuado y preciso para dar cobertura al 50% del importe a que ascienda el presupuesto de licitación.

2.- Tras la formulación de la propuesta de adjudicación y con anterioridad a la adjudicación del contrato, el Ayuntamiento de Beasain enviará a la Agencia Vasca del Agua el certificado de disponibilidad de crédito adecuado y suficiente para la cobertura de 50% del importe de adjudicación.

3.- Adjudikazio prezioan eragin ekonomikoa duten kontratuaren baitako gorabeherak (esaterako, gehiegikeria likidazioan, prezioen berrikuspena, zerga tasa aldatzea, etab.), eta obra aldaketak eta obra osagarriak hirugarren d) eta laugarren e) klausuletan adierazitako ehunekoetan finantzatzeko ditu alderdi bakoitzak. Gorabehera horiek edo kontratu jarduketa horiek onesteko, hitzarmenaren segimendu batzordearen aldeko txostenaz gain, nahitaezkoa izango da dagokion erakunde administratiboak onestea, baita alderdiek finantzatzera konprometitzen diren zenbatekoak estaltzeko kreditu egokia dutela eta erabilgarri dutela ziurtatzen duen agiria ere, 3. eta 4. klausuletan alderdiek beren gain hartutako aurrekontu konpromisoak gainditzen direnean.



4.- Beraien gain hartutako konpromiso finantzarioen mugara arte, alderdi bakoitzak ezarritako ehunekoaren arabera ordainduko ditu obrak.

5.- Uraren Euskal Agentziak Udalari igorriko dizkio Udalak ordaindu beharreko zenbatekoa adierazten duten ziurtagiri onetsiak. Hala, tokiko erakundeak adierazi zaion zatiari dagokion diru-sarrera egingo du Euskal Agentziaren kontuan, dokumentazioa jaso eta hurrengo hogeiei egunen barnean.

3.- Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como exceso en liquidación, revisiones de precios, modificación de tipos impositivos etc.), así como los modificados de obra y las obras accesorias o complementarias serán financiados en los porcentajes indicados en las cláusulas tercera d) y cuarta e) por cada una de las partes. Para la aprobación de las citadas incidencias o actuaciones contractuales, además del informe favorable de la comisión de seguimiento del convenio, será preceptiva la aprobación por el órgano administrativo correspondiente, así como la certificación de la existencia y de la disposición de crédito adecuado para la cobertura por cada una de las partes de los importes que se comprometen a financiar, cuando se exceda de los compromisos presupuestarios asumidos por las partes en las citadas cláusulas 3ª y 4ª.

4.- Hasta el límite de los compromisos financieros asumidos, el pago de las obras se realizará en el porcentaje establecido por cada una de las partes.

5.- La Agencia Vasca del Agua remitirá al Ayuntamiento las certificaciones aprobadas con indicación del importe a abonar por el mismo, quedando obligado el ente local al ingreso de su parte en la cuenta de la Agencia Vasca que se indique, dentro de los veinte días siguientes a la remisión de la documentación.

**ZORTZIGARRENA.-
JARRAIPENA EGITEA.**

1.- Jarraipen batzorde bat eratuko da hiru ordezkariarekin. Horietako bat Uraren Euskal Agentziakoa izango da, beste bat Beasaingo Udalekoa eta beste bat CAFekoa, eta, hurrenez hurren, hitzarmen hau sinatu duten alderdiek izendatuko dituzte eginkizun hauetarako:

a) Proiektua aztertzea onetsi aurretik.

b) Hitzarmen honetan aurreikusitako obra hidraulikoak normal gauzatzeko segimendua egitea, elkarri informazioa eman ahal izateko eta bakoitzaren konpromisoak era egokian bete ahal izateko irizpideak eta moduak zehaztuz.

c) Kasu bakoitzean eskatzen diren tramiteen arintasuna oztopatzen duten oztopoak mugi daitezela erraztea.

d) Hitzarmen honen xede diren jarduketak betetzen direla bermatzeko behar diren neurrien berri ematea eta proposatzea, bereziki urterokotasuna egokitzeko kasuetan eta seigarren klausulan jasotakoetan.

e) Hitzarmenak planteatutako interpretazio eta gauzatze arazoak ebazten saiatzea.

**OCTAVA.- SEGUIMIENTO DE LAS
ACTUACIONES.**

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento, compuesta por tres representantes, una persona de la Agencia Vasca del Agua, otra del Ayuntamiento de Beasain y otra por parte de CAF, que serán designadas, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Analizar el proyecto con carácter previo a su aprobación.

b) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las obras hidráulicas previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

c) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

d) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula sexta.

e) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Hitzarmenaren indarraldian eta alderdietako edozeinek proposatuta, batzordea obren martxa onak eskatzen duen aldi guztietan bilduko da. Bilerako quorumak eta erabakiak bertako kideek aho batez hartuko dituzte.

3.- Hitzarmen honetan segimendu batzordearentzat berariaz aurreikusi ez den guztian, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak Atariko Tituluaren II. Kapitulua 3. Atalean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Hitzarmen honen izaera administratiboa da; beraz, interpretatzeko eta garatzeko, administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoa hartuko da kontuan.

2.- Hitzarmen honek planteatzen ditzakeen interpretazio edo gauzatze arazoak segimendu batzordeak ebazteko dituen aurreko klausulan aipatutakoaren arabera; ezin bada, aipatutako 40/2015 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan.

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmen honek ez du alderdien eskumenen uko egiterik eta aldaketarik

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las obras. Los quórumos de reunión y de adopción de acuerdos lo serán por unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

NOVENA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015.

DÉCIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes

ekarriko. Alderdiek hitzarmenaren arabera hartzen dituzten konpromisoen berezko ardurak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen den unetik bertatik izango ditu ondorioak eta esku hartzen duten alderdiak behartuko ditu, eta lau urte iraungo du. Halere, epe hori amaitu baino lehen luzatu ahal izango da obrak Beasaingo Udalak behin betiko hartu arte eta ondoren bere esku egon arte, seigarren klausulan adierazitako eran.

Luzapena berariaz adostu beharko da eta, gehienez, beste lau urtez luzatu ahal izango da.

HAMAIKAGARRENA.- AZKENTZEA.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan aipatutako indarraldia igarotzeagatik edo suntsiarazteagatik azkenduko da.

2.- Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoetako baten bat ez badu betetzen, beste alderdiek hitzarmena suntsiaraztea eskatu ahal izango dute. Suntsiaraziz gero, alderdiek zehaztuko dituzte gauzatzen ari diren jarduketak amaitzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Nolanahi ere, hitzarmen honen Eranskinean proiektuak lantzeko, tramitatzeko eta onesteko

intervenientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y su duración será de cuatro años. No obstante, antes de la finalización de ese plazo podrá prorrogarse hasta que se produzca la recepción definitiva de las obras y posterior puesta a disposición de las mismas a favor del Ayuntamiento de Beasain, de la manera señalada en la cláusula sexta.

La prórroga deberá acordarse expresamente y como máximo lo será por otros cuatro años más.

UNDÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la/s otra/s para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

En todo caso, las fases y plazos establecidos en el Anexo de este convenio para la

ezarritako faseak eta epeak era justifikatuan birdoitu ahal izango dira, baita gorantz ere, eta doitze horiek ez dute esan nahiko arlo horretan hartutako konpromisoak beteko ez direnik.


Suntsiaraziz gero, alderdiek zehaztuko dituzte hitzarmen honen xede diren jarduketak amaitzeko eta ordaintzeko epeak, bertan ezarritako esku hartze irizpideen eta konpromisoen arabera.

Eta ezarritakoa betez eta ezarritakoaren arabera, alderdiek hiru ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.


elaboración, tramitación y aprobación de proyectos podrán ser justificadamente reajustados, incluso al alza, sin que esos ajustes supongan el incumplimiento de los compromisos adquiridos a ese respecto.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones objeto de este convenio, de conformidad con los criterios de intervención y los compromisos establecidos en él.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por triplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.



**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
ZUZENDARI NAGUSIA / DIRECTOR
GENERAL DE LA AGENCIA VASCA
DEL AGUA**



**BEASAINGO ALKATE-
UDALBURUA / EL ALCALDE-
PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN**



**Construcciones y Auxiliar de
Ferrocarriles, S.A**

Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta

Aitor Aldasoro Iturbe

Gorka Zabalegi Aginaga





ERANSKINA

ANEXO

PROIEKTUAK LANDU, TRAMITATU ETA ONESTEKO, ETA HITZARMENEAN AURREIKUSTEN DIREN LANAK GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO FASE ETA EPEAK

FASES Y PLAZOS PREVISTOS PARA LA ELABORACIÓN, TRAMITACIÓN Y APROBACIÓN DE PROYECTOS, Y LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS CONTEMPLADAS EN EL CONVENIO

1. fasea

Fase 1.

- Proiektu hidraulikoa lantzea (bertan jasoko dira eraikinak eta egungo zubiak eraisteko proposamenak, bai eta zubi horietako bat ordezkatzekoa eta ibaia zabaltzekoa ere), jendaurrean ikusgai jartzea eta onestea: 12 hilabete, hitzarmen hau sinatzen den unetik zenbatzen hasita.

- Elaboración del proyecto hidráulico (incluyendo en él las propuestas referentes al derribo de las edificaciones y puentes actuales, a la sustitución de uno de los puentes y al ensanchamiento del río), información pública y aprobación: 12 meses contados a partir de la firma de este convenio.

2. fasea

Fase 2.

- Proiektua idaztea eta CAFeko bulegoak gaitzea: 16 hilabete, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta beharrezko lizentziak lortu eta egin beharreko ekintzen arabera.

- Redacción del proyecto y habilitación de las oficinas de CAF: 16 meses contados a partir de la firma de este convenio y sujeta a la obtención de las licencias y autorizaciones necesarias.

Aipaturiko proiektua dagokion hirigintza planeamendu batekin osatu beharko balitz (Plan Berezia), epe hori egokituko da dokumentu hori izapidetzeko behar diren baldintzekin.

En el supuesto de que la elaboración del citado proyecto deba ser complementada con la redacción y aprobación del correspondiente documento de planeamiento urbanístico (Plan Especial), dicho plazo será reajustado en los términos requeridos por la tramitación de dicho documento.

Epe hori luzatu ahalko da, betiere lizentziak lortu eta lan horiek gauzatzeko arrazoiek justifikatzen badute.

3. fasea

- Fase honetan, proiektuan jasotako lan hidraulikoak gauzatzeko dira, CAFeko bulegoak gaitu ostean. Hau da, bigarren fasean zehazten diren 16 hilabete horiek (hitzarmena sinatzen denetik zenbatzen hasita) igaro ostean.

Ese plazo podrá ser ampliado en el período que se estime adecuado, siempre que razones asociadas a la obtención de autorizaciones o a la propia ejecución de las obras lo justifiquen.

Fase 3.

- En esta fase se procederá a la ejecución de las obras hidráulicas proyectadas, una vez habilitadas las oficinas de CAF, es decir, transcurridos los 16 meses contados a partir de la firma del convenio establecidos en la fase 2.

